

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Idazkari-kontuhartzaile lanpostua betetzea

Alkatetzaren 2016ko otsailaren 29ko Dekretu bidez, ondoko erabaki hau hartu da:

“2016ko otsailaren 16ko datarekin, udal honetako idazkari-kontuhartzaileari baimena eman zaio euskara ikastaro bat egiteko.

Bitarteko idazkari-kontuhartzaile izendatu den pertsonak uko egiteko idazki bat aurkeztu du aurtengo otsailaren 26tik aurrerako ondorioekin.

Uztailaren 29ko 1732/1994 Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administraziooko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, xedatutakoaren arabera, Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaile lanpostu hori gaikuntza nazionalako toki administraziooko funtzionarioentzat gordeta dago.

Kontuan hartuz beharrezkoa dela lanpostu hori betetzea, udalaren jarduera gelditzea ekiditeko.

Kontuan hartuz apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 21.1.h) artikuluan eta 92. bis artikuluan xedatutakoa.

Honen bitartez, ebatzi dut:

Lehenengoa. Lehenengoa. Hamar egun balioduneko epea irekitzea, dagokion iragarkia ALHAOn argitaratzen den egunetik hasita, hautagaiek Legutioko Udaleko idazkaritza-kontuhartzailetzako plaza behin-behineko izendapen bidez betetzeko eskaerak aurkezteko. Eskaerak dekretu honi erantsita dagoen ereduari jarraituta egin behar dira.

Gaikuntza nazionalako toki administraziooko funtzionario bat izendatuko da, lanpostuaren azpieskala eta kategoria bereko hautagaiek lehentasuna izanik; kontu hori behar den moduan egiaztatuko da.

Hautagai bat baino gehiago aurkezten badira, honako hau proposatuko da izendatua izateko hautagaitzat: puntu gehien lortu duena parte hartzeko eskaerak aurkezteko epea bukatzen den egunean Ogasun eta Herri Administrazio Ministerioak argitaratutako azken merezimendu lehiaketan.

Bigarrena. Jakinarazten da idazkari-kontuhartzaile lanpostuak 3. hizkuntza eskakizuna esleituta duela, derrigortasun datarik gabe. Lanaldia osoa izango da.

Hirugarrena. Arabako Foru Aldundiari hautatutako hautagaiaren behin-behineko izendapena proposatzea.

Laugarrena. Hautagairik aurkezten ez bada, aurrera egingo du 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionalako toki administraziooko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, 30. artikuluan eta hurrengoetan xedatutako prozedurak

Bosgarrena. Udalbatzari ebazpen honen berri ematea hurrengo osoko bilkuran.”

Legutio, 2016ko otsailaren 29a

Alkatea

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA

Eranskina

Nik,jaunak/andreak (NANa:; jaki-narazpenetarako helbidea:; telefonoa:), zeinak, gaikuntza nazionaleko funtzionarioa izanik, azpieskalakoa, egun toki administrazioan..... lanpostua betetzen baitut, ondokoa

Adierazten dut:

Jakitun nago Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzaileari euskara ikasteko baimena eman zaiola, 2016ko otsailaren 16ko datarekin, eta beharrezkoa dela lanpostu hori behin-behineko izaeraz betetzea, uztailaren 29ko 1732/1994 Errege Dekretuak, gaikuntza nazionaleko toki administrazioko funtzionarioentzat gordetako lanpostuak betetzeari buruzkoak, 30. artikuluan xedaturakoaren babespean.

Uste dut betetzen ditudala lanpostu horri dagozkion zereginak zuzen betetzeko eskatzen diren baldintzak, eta, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, eta bidezko diren izapideak bete eta gero.

Eskatzen dut:

Legutioko Udaleko idazkari-kontuhartzailetzako lanpostua behin-behineko izendapen bidez betetzeko prozeduran parte hartzea.

Honekin batera, ondoko agiriak aurkezten ditut:

- NANaren fotokopia
 - Gaikuntza nazionaleko funtzionarioa egiaztatzeako agiria.
 - 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatua dudala ziurtatzen duen agiria.
--(e) n, 2016ko-(a) ren ...a

Sinadura.....